

OSTEGUNA

2019/07/25
7. urtea, 1.098. zenbakia
107.6 fm

www.ataria.eus

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 80 €

«Sodio-oxigeno eta litio-oxigeno baterien ezaugarria da arnasten dutela»

IMANOL LANDA
KIMIKARIA

Doktoretzako Sari Nagusia eman dio EHUko Graduondo Batzordeak //



Amarotz auzoa farmaziarik gabe

Tolosako Larramendira lekualdatuko dute; botikin bat eskatzen dute //



AMASA-VILLABONA DEIA ANIZTASUNARI

Aniztasunean Lagun boluntario taldeak bota zuen atzo, Santio jaietako suziria; festak aniztasunean, errespetuz eta euskaraz bizitzeko gonbita luzatu zuten; gazte asanblada Pilotari kaleko bigarren zenbakiaren azpialdean ariko da //

«Hezitzaileoi garunaren funtzionamendua interesatzen zaigu»

XABI GOMEZ
IRAKASLEA

‘Crear escuela, tendiendo puentes entre la neurociencia y el aula’ liburua argitaratu du irakasle tolosarrak //

Udako oporraldia dela eta, bihar ikasturteko ‘Ataria’-ren azken alea: Abuztuko jaien aldizkari berezia.

Irailaren 3an itzuliko gara. Bitartean jarraitu eskualdeko albisteak ‘ataria.eus’ webgunean.

LIZARDI

inmobiliaria

www.inmolizardi.com
San Frantzisko ibilbidea, 41 A behea
Tolosa 943 65 11 22




93.000€

Berrobi: 3 logela, sukaldea, egongela eta bainugela. Trastelekua.



177.000€

Tolosa, Bizkai kalea: 3 logela, sukaldea, egongela eta bainugela.



196.728€

Ibarra, Arantzazuko Ama: teilatupea, 2 logela, sukalde-egongela eta bainugela. Terrazarekin.

Farmaziarik gabe geratuko da Amarotz; zerbitzuak, Larramendi auzora lekualdatzeko baimena lortu duelako. Auzotarrek botikin bat jartzeko eskaera egiten diote udalari, egungo lokala dagoen tokian.

Osasun zerbitzu baten beharrea

Josu Artutxa Dorronsoro

Amarotz auzoa, herriaren gunetik bereizten du N-1 autobideak. Oinezkoek eragozpen handiak izaten dituzte herrigunearekin komunikatzeko, herrian sartzeko edo bertatik irteteko biribilgunea dela eta, ibilgailuen trafikoa handiko errepideak direla eta, edota industrialderako errepideak direla eta. Hain justu, auzotarrek hilabetero argitaratzen duten *Auzoetxe* aldizkarian, gogora ekarri nahi izan dute, ekaina hasieran, oinezko pasabideetako batean auzotar batek ibilgailu batekin izandako istripua.

Bizilagunak, baina, ez dira mugikortasun eta irisgarritasun arazoez soilik mintzatzen. Lehendik ere agerikoak ziren auzoko medikuarekin zituzten ezbeharrak, eta orain osasun arloan beste albiste txar bat jaso dute. Duela aste batzuk, Larramendi auzora lekualdatzeko baimena lortu zuen Amarotz auzoko botikak. Euskal Autonomia Erkidegoko legearen arabera, Amarotzen ezinezkoa da farmazia bulego berri bat jartzea. Ondorioz, farmazia zerbitzurik gabe geratuko dira auzotarrak.

Hori dela eta, bertako bizilagunek, mezu bat bidali nahi diete Tolosako Udalari: Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari Amarotz auzoan botikin bat jartzeko eskatzea. Ez da erraza, ordea. Auzotarrak jakitun dira prozedura konplexua dela, eta horregatik, zenbait legeetan oinarritu dira eskaera egiterako orduan.



Egun, Amarotz jatetxearen ondoan dago kokatuta auzoko farmazia; botikina leku berean jartzea eskatzen dute. J. ARTUTXA

FARMAZIAREN LEKU BEREAN

Batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Farmazia Ordenamenduak, helburu gisa finkatzen du, herritar guztiei farmazia zerbitzu egoki eta homoginoa bermatzea. Legediak ezartzen duenez, farmazia zerbitzu egoki batek esan nahi du, botika erraz eta azkar eskuratzeko ahalmena izatea, eta botika hori, kontrol bermearekin eta beharrezko informazioarekin eskuratzea.

Horiez gain, botikinak jardunean jartzeko baimen, baldintza eta jardunbiderako erregimena ezartzeko dekretuaren artikulua batean, botikina izateko eskubidea ezartzen da: «800 biztanle baino gehiagoko udalerriak izan arren eta botika eduki arren, komenigarria da bertako auzo ba-

EAEko legearen arabera, ezinezkoa da Amarotz auzoan farmazia bulego berri bat jartzea

Egungo farmaziako titularrak prest egongo litzateke lokala utzi, eta botikin zerbitzu modura erabiltzeko

tzuetan establezimendu mota hau edo bestelako osasun zerbitzu bat edukitzea, gertuen dagoena urrun dagoelako, eta hara joateko zailtasunak daudelako, edo biztanleak leku batean aldi baterako bildu direlako».

Halaber, Amarotz auzoko farmazia irekitzeko prozeduran, Auzitegi Gorenak adierazi zuen auzoa populazio gune isolatua zela, eta herrigunetik berezia. Aurrez aipatutako dekretuko ar-

tikulu berean, honakoa zehazten da: «Botikinak udalerririk bereko botika bati erantsirik egongo dira. Kasu honetan, egun Amarotzeko farmaziaren titularrak Lourdes Azpirozek, Larramendi auzora lekualdatzeko baimena duenak, Amarotzko farmaziaren azpiegitura botikin modura erabiltzeko aukera eskaini behar die auzotarrei». Era horretan beteko lirateke botikinei exijitzen zaizkien betebeharrak tekniko-sanitario guztiak.

Era berean, eskaera egiteko, zenbait dokumentu gehiago aurkeztu beharko litzateke udalari: Botikin bat jartzearen eskaeraren gaineko erabakia onartzen duela baieztatzen duen osoko bilkurako akta (udalari dagokiolako botikin zerbitzu bat jartzeko baimena eskuratzeko prozedurari hasiera ematea); Amarotz auzoan herrigunetik berezita dagoen gunea dela egiaztatzen duen udal ziurtagiria; teknikari eskudunak egindako planoak (Amarotz auzoaren mugak zehaztuta agertzen direna); Amarotz auzoan gutxienez 800 lagun errolatuta daudela egiaztatzen duen udal ziurtagiria; eta azkenik, gertuen dagoen farmaziarako joan-etorria auto batean, zirkulazio arauak betez eta gertuen dagoen eraikinetik hasita, batz besteko 10 minututik gorakoa dela egiaztatzen duen ziurtagiria.

%28

ADINEKO AUZOTARRAK

EUSTATen datuen arabera, Amarotzko auzotarren %28ak, 65 urtetik gora ditu. Adineko jende kopuru handiena duen Tolosako bigarren auzoa da. Tolosan, %22a dira 65 urtetik gorakoak. «Sekulako eragozpena da farmazia batera heltzeko auzotik kanpora joan behar izatea. Askorentzat arazo handia da, adinagatik, mugitzeko arazoengatik edo menpekotasunagatik».

ETORKIZUNA «KINKA LARRIAN»

Horrez gain, aurrez aipatu bezala, Tolosak, auzoan bertan botikina jartzeko lokal bat baduela, eta beharrezko ezaugarriak, ekipamendua eta baldintzak betetzen dituela baieztatu beharko litzateke, interesaturik legokeen farmaziari bertan botikin zerbitzua jartzeko. Auzotarrek diotenez, «udalak ez luke arazorik izango. Izan ere, oraingo titularrak prest dago lokal hori botikin modura erabiltzeko».


Orain arte aipatutako eskaeraz gain, Amarotzko bizilagunek, beharrezkotzat jotzen dute hainbat aipamen egitea. «Auzoko zatirik handiena orain urte asko egindako eraikinez dago osatuta, eta babes sozialetako etxebizitza kopurua handia da. Horrek erakusten du, bestalde, batz besteko eros ahalmena baxua dela. Gainera, garraio baliabide propiorik gabeko adineko pertsonen kopurua handia da». Azkenik, auzoaren etorkizuna «kinka larrian» dagoela aitortzen dute. Zerbitzuak galtzen ari dira, baita krisiagatik, arazo ekonomikoengatik edo erretiroagatik establezimenduak ixten ere. Auzotarrentzat, beraz, «ezbehar handia» izango da farmazia ixtea. Auzoan oso ondo baloratzen dute zerbitzu hori; bereziki, aurrez aipatutako adineko pertsonen sektore jendetsuak. Ondorioz, auzoan botikina irekitzeko, bizilagunen bizi kalitatea mantenduko duela aitortzen dute. «Udalari dagokio hori sustatzea eta bultzatzea. Beharrezkoa da, beraz, auzoan botikin zerbitzua ezartzearen alde egitea».

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak)
diruz lagundua

IRAGARKI LABURRAK

Lana

Lan eskaintza. Tolosako 3 taberna pizzeriko lantaldea handitzera goaz. Barra eta mahaietarako, eta sukalderako zein laberako langileak behar ditugu. Interesa baduzu bidali zure curriculumak 3taberna@gmail.com helbidera edo deitu 688 773 733 telefono zenbakira.



JOSU ARTUTXA DORRONSORO

«30 urte barru oxigenoa arnasten duten bateriak eskura izatea da helburua»

IMANOL LANDA MEDRANO KIMIKARIA ETA IKERTZAILEA

Ekaina amaieran banatu zituzten 2016-2017 ikasturteko Doktoretza Tesien Sari Nagusiak. 'Non-Aqueous Li- and Na-O₂ Batteries' lanari esker jaso du saria Imanol Landa alegiararak.

Josu Artutxa Dorronsoro

Ingurugiro zientzietan lizentziaduna da Imanol Landa Medrano (Alegia, 1988). Horren bitartez, kimika ez-organikoko sailean sartu zen, material berrien inguruko masterra burutzeko. Bertan, kimika ez-organikoari buruzko tesia burutu zuen. Azkenik, *Materialen zientzia eta teknologia* programaren barruan burutu zuen doktoretza. Aldi berean, gainera, Kimikako gradua ikasten jardun zuen UNEDen. Ekainean jaso zuen Doktoretzako Sari Nagusia EHUko Zientzia Alorreko Graduondo Batzordearen eskutik.

Zer sentitzen da horrelako sari bat jasotzean?

Lehenago, nire sailean ikasle gehiago saritu izan dituzte; beraz, ez da burutik pasatzen ez zaizun zerbait. Hala ere, sekulako poza ematen du egindako lan gogor horrek errekonozimendu

bat izateak. Eskerrak eman nahi dizkiot zuzendariari, baita lagundu nauten guztiei ere. Hau ez da pertsona bakar baten lana; hortaz, ez da pertsona bakarrarentzako saria.

Zergatik jaso duzu saria bi urteren ondoren?

2016ko abenduan aurkeztu nuen nire lana. Askotan, tesiak finantzazioa amaitu baino lehen defendatu behar izaten dira. Horrek, ordea, ez du esan nahi lana borobildu duzunik. Ikerketa faseak oraindik zabalik irauten du. Ikerketa burutzen duzu, baina agian ez dituzu emaitza guztiak publiko egiten. Hori dela eta, tesia defendatu ondoren, bi ikasturteko epea ematen dute, lan hori guztiz osatzeko, eta gero, lehiaketara aurkezten zara.

Zeri buruz burutu zenuen tesia, eta zer dela eta?

Bi bateria moten prozesu elektrokimikoari buruzko tesia da. Niri gaita aurkeztu zidaten, eta

interesgarria iruditu zitzaidan. Irakasle baten bidez sartu nintzen ikerketan, bere sailean ikeretzen zelako.

Zer landu duzu bi baterien inguruan?

Sodio-oxigeno eta litio-oxigeno bateriak dira. 30 urte barru errealak izateko eta funtzionatzeko pentsatuta dauden gailuak dira. Egun, laborategian ari dira tratatzen. Arnastea da duten ezaugarri nagusia: batetik, litioa edo sodioa dute; bestetik, oxigenoa.

Nola arnasten dute bateriek?

Esaterako, bateria hori telefono mugikorrera konektatzen baduzu, erabiltzen duzun bakoitzean, bateria horrek oxigenoa arnasten du atmosferatik; erreakzio baten bidez biltegitratzen du. Horrek, baina, muga bat du, eta beraz, betetzen denean, ezinezkoa da oxigeno gehiago biltegitratzea. Mugikorra bateriarik gabe gertatzen, kargatu egin behar izaten da. Bateria hauen bitartez, kargatzen denean, biltegitratutako oxigenoa askatzen dute. Hortaz, energia biltegitratzeko modu garbi bat izango litzateke. Oraindik goiz da behar bezala funtzionatzeko, baina denborarekin bere eginbeharra beteko dute.

Zer ikasi ahal izan duzu tesia burutu bitartean?

Gaiari buruzko guztia tesia egin bitartean ikasi nuen. Hasieran

proposamen bat jaso nuen, baina ikertzen hasi arte ez dituzu benetan ezagutzen ikerketagaia- ren xehetasunak. Batez ere, asko ikasi nuen esperimendu eta frogetatik. Prozesu formatiboa izan da. Teknikak lantzen ikasi dut, baita gaiaren inguruko zenbait ezagutza ere, eta garrantzitsuenena dena, proiektu bat zerotik amaierara arte bideratzen ikasi dut. Horrek, zenbait balio ematen dizkizu, etorkizunean antzeko gaitan ikertzaile izateko.

Ingelese burutu duzu, ezta?

Tesia bera ingelesez egina dago. Defentsaren kasuan, aurkezpenaren erdia ingelesez eta beste erdia gaztelaniaz egin nituen. Nazioarteko Tesi Titulua nahi nuen, tesiaren atal batzuk eta aurkezpenaren erdiak ingelesez eginak behar zuten. Gainera, gutxienez hiru hilabeteko egonaldia egin behar nuen atzerrian.

Erraz moldatzen al zara ingelesarekin?

Zientzia eta ikerketa ingelesez eginak daude, gehienbat. Edozein gairen inguruan ikertzean, artikulua gehienak ingelesezkoak izaten dira. Beraz, hizkuntza teknikoa nahiko barneratua dugu. Zailagoa izaten da egunerokoan harremanak mantentzea; gabezi handiagoak ditugu. Ingelese egitearen arrazoiak hau da: lan handiagoa suposatzen zuen guztia itzultzeak, egokitzeak baino.

«Bateriak mugikorrera konektatuz gero, erabilera bakoitzean, oxigenoa arnasten dute atmosferatik»

«Oso baliagarriak izan ziren hiru egonaldiak, arazoei aurre egiteko modu ezberdinak daudela ikasi nuelako»

Non egin zenuen egonaldia?

Bartzelonan (Katalunia), Chicagon (AEB) eta Southamptonen (Ingalaterra) izan nintzen. Hemen zailtasun teknikoak nituen esperimenduak behar bezala egiteko, gure departamentuko laborategian ez genuelako behar adina baliabide. Inguruko laborategietan ere ibili nintzen, baina beti leku berean frogak egitea ez da bilakaera bat izateko modu egokiena. Beharrezkoa iruditu zitzaidan atzerria joatea. Leku batera nahiz bestera joan, bertan zientzia nola lantzen den ikustea oso interesgarria izan zen.

Oso ezberdinak diren hiru herrialdeetan izan zinen. Zientziari ere ikuspegi ezberdin batetik begiratzen diote?

Bakoitzean, gai jakin batzuetan

dira adituak, eta ikasgai ezberdinak jaso nituen. Gainera, arazoei aurre egiteko modu ezberdinak daudela ere ikasi nuen. Gutako bakoitzak, eroso egiten zaigun moduan egiten diegu aurre ez-beharrei. Batzuetan, norberaren teknikak oso onak dira, baina beste batzuetan ez dute balio.

Zer azpimarratuko zenuke egonaldi bakoitzetik?

Bartzelonan egon nintzenean, tesia gainbeheran zihoan, baina egonaldiari esker, lana salbatzea lortu nuen. Bertako ikertzaile batak asko lagundu ninduen. Pertsonalki, nire lehen irteera zen, eta esperientzia ona izan zenez, beste egonaldiak egitera animatu nintzen. AEBtan, gobernuak finantzatzutako laborategi handietan aritu nintzen. Erraztasun asko eskaintzen zizkidaten; edozer eskatzen nuela ere, eman egiten zidaten. Ingalaterran, azkenik, aukera izan nuen gustukoaren nituen ikerketa gaitan espezializatzeke. Ikerketa fundamentala lantzen zuten. Bateria osotasunean ulertu ordez, erreakzioak banaka lantzen genituen. Arlo pertsonalean ere esperientzia izugarria izan zen, lagun ugari egin nituelako.

Tesia zehazteko prozedura moduko bat izan zen, beraz?

Bai. Gainera, azken egonaldian gozatu nuen gehien. Tesia borobiltzeko ere baliagarria izan zen.

Zergatik zenioen lana borobildu gabe geratzen dela?

Tesia amaitu nuenean, 2017ko ekainean, sei hilabete eman nituen unibertsitatean. Gero, esperimendu batzuk martxan utzi genituen. Orain, beste ikasle bat ari da esperimendu horiek aurrera eramaten. Oraindik ere nire denbora librearen tarte bat eskaintzen diot ikerketa lan horri. Hala ere, profesionalki ez dut horretan jarraitzen. Egun, beste gai batzuen inguruan ikertzen dut.

Zeren inguruan?

Litio-ioizko bateria aurreratuetan ikertzen dihardut, Cidetec fundazioan. Ikerketa aplikatua da. 30 urte barru erabiliko diren baterien inguruan ikertu ordez, bizpahiru urteetara ikusiko ditugun baterien inguruan ikertzen ari naiz. Euren materialekin etortzen dira enpresak, horiek baterietan zer moduz moldatzen diren probatzeko.

Aurrera begira, baliagarria egingo al zaizu tesia?

Bai, batez ere, teknika ugari ikasi ditudalako, baita lehen esan bezala, proiektu bat ezerezetik gertatzen hasteko gaitasuna lortu dudalako. Bateria horiek, gainera, gurean azaltzen direnean, ederki oroituko naiz tesiaz.

Ur Mara museoaren Grap Hik! topaketak irailak 14 arte

Maiatzaren 18an hasi zen papera, grafika lanak eta artista liburuei buruzko jardunaldia, baina hamaika aukera daude oraindik

Erredakzioa Alkiza

Alkizako Ur Mara museoaren Grap Hik! topaketen barruan, kontzertua egongo da larunbatean, hilak 27. 19:00etatik aurrera Miren Aranburu eta Jean Louis Hargousen emanaldia entzun ahal izango da. Ihintza-Chloë Hargousen argazkiak eta Juan Kruz Igerabideren poemak biltzen dituen erakusketa ere ikusi ahal izango da.

Alkizako museoak maiatzaren 18an abiarazi zuen topaketa, baina irailaren 14a bitarteko egitaraua dago aukeran. Abuztuaren 5etik 9ra natura eta arte esperimentzen tailerra egingo dute, hau da, teknika eta baliabide artistikoen tailerra, estanpazioa, eskuz egindako papera, tresna eta material naturalak landuko dituzte. Tailerrean izena emateko mail@urmara.com helbidera idatzi behar da edo 609 465 942 telefono zenbakira deitu.

Abuztuaren 18an, 11:30etik aurrera, Begoña Durrutyren Bere terretxe Kanthoria erakusketa ikusi ahal izango da, eta musika ere egongo da: Ortzian abesbatza ariko da Juan Kruz Igerabideren olerkiak abestuz.

Irailaren 1ean 12:00etan Enrique Solinisek eskainiko du gitarra kontzertua, *Bazen behin gitarra* izenpean. Bukatzeko irailaren 14an, 18:00etan, Antonio Casado de Rochak hitzaldia eskainiko du eta *Site specific* antzezlanak ikusi ahal izango da.

Uztailaren 29an abiatuko da Udako Argazki Lehiaketa

‘TOLOSALDEKO ATARIA-K’ berriz antolatu du argazki lehiaketa; irailak 22 izango da argazkiak bidaltzeko azken eguna

Erredakzioa Tolosa

TOLOSALDEKO ATARIA-k udako argazki lehiaketa antolatu du beste behin. Sari bikainak izango dira argazki onenentzat eta uztailearen 29tik irailaren 22ra bitartean bidali ahal izango dira argazkiak. Irudiak ataria.eus webgunean lehiaketarako egindako formularioaren bidez igo ahal izango dira, iaz bezala. Gogoratu, Atarikideek izenaren ondoan harpide zenbakia idatzi behar dutela. Argazkiarekin batera adierazi behar dira egilearen izen-abizenak, harremanetarako telefono zenbakia, eta herria zein helbide elektronikoa. Horrez gain, argazkia non eta noiz aterata dagoen, edo argazkiko gaiak iradokitako esaldiren bat ere idatz daitezke.

SARIAK

Urtero bezala sari bikainak daude jokoan. Epaimahaiaren saria jasotzen duenak bi lagunentzako asteburu bateko egonaldia jasoko du Kurtxia landetxearen eskutik.

Erabiltzaileen saria irabazten duenak aldiz, lau lagunentzako bazkari bat egin ahal izango du Inazio Urruzola txakolindegian. Eta horrez gain, parte-hartzen duten Atarikide guztien artean, Tolosako Zumardia elkarteak eskainitako bi neguko eski ikastaro zozkatuko dira.



Xabier Agirrezabalak jaso zuen iaz, epaimahaiaren saria. XABIER AGIRREZABALA

EZAUGARRIAK

Parte hartu ahal izateko garrantzitsua da argazkiaren ezaugarriak kontuan hartzea. 300pppko bereizmena, 30x20 zentimetroko gutxieneko tamaina, koloretan zein zuri-beltzean izan daitezke eta 2019ko udako argazkiak izan behar dira. Tolosaldean bizi diren edo eskualdearekin lotura dutenek soilik har dezakete parte.

Argazkiak bidaltzeko epea irailaren 22an amaituko da eta

irailaren 24tik urriaren 13ra bitartean argazkiak bozkatzeko epea zabalduko da. Irabazleen berri urriaren 18an emango da.

Argazkia guztiak ATARIA-ko artxiboan gordeko dira eta antolatzaileak beretzat gordeko du jasotako lanak publikatzeko eskubidea. Parte-hartzaileak, bidaltako lanen jabe den neurrian, lanak erabiltzen eta jendarean erreproduzitzen uzten dio ATARIA-ri, beti ere, egilearen izena adieraziz.

Auzitegi Gorenak ez du onartu CAF-ek jarritako helegitea

Alegian jaiotako Celestino Tolosa Irungo CAFeko langilea amiantoa arnasteagatik hil zela berretsi du auzitegiak

Erredakzioa Alegia

Celestino Tolosa Alegian jaiotzen, baina urteak eman zituen Irunen, eta bertan dagoen CAF enpresan egin zuen lan. Enpresan lanean ari zela arnastutako amiantoagatik hil zela baieztatu zuen EAEko Auzitegi Nazionalak iaz. Hain zuzen ere, bere birrikak aztertu zituzten, langileak eskatuta gorde baitziren. CAFeko zuzendaritzak, baina, helegitea jarri zion epai horri, eta Auzitegi Gorenak orain, atzera bota du helegitea.

ASVIAMIE ELKARTEA

Asviamie EAEko amiantoaren biktimen elkarteak esan duenez, helegitea ez onartu izana berresten du Celestino Tolosa asbestosi arnas gaixotasun kronikoa dela eta hil zela, eta amiantoak kaltetu zituela bere birrikak, horiek birlandatu baino lehen.

Elkarteak CAF enpresaren jarrera salatu du eta esan du «harmakada luzez bere langileak amiantoaren arriskupean jarri zituela onartu eta barkamena eskatu ordez», langileak kaltezen jarraitzen duela.

Asviamie elkarteak enpresako zuzendaritzaren jarrera salatzera animatu du gizartea, era berean, enpresari eskatu dio egindako mina onartzeko eta «horrenbeste min» sortzen duen helegiteen bidea bertan behera uzteko.



galtzaundi
taberna

Ogitartekoak
Pintxoak
Errazioak
Plater konbinatuak



San Bartolome plaza | IBARRA | ☎ 691 080 726

Festak aniztasunean eta euskaraz bizitzeko deia luzatu dute

Villabonako Santio festei atzo eman zitzaien hasiera, Aniztasunean Lagun boluntario taldeak piztutako suziriarekin; gaur jai egun handia izango dute herrian

Jon Miranda Amasa-Villabona

Aniztasunean Lagun boluntario taldekoak oholtza gainean izan ziren atzo, zortzi eguneko jai egitarauari hasiera emanez. Erreboten plazan bildutako herritarrei aholku batzuk eman zizkieten jaiak aniztasunean, errespetuz eta euskaraz igaro ditzaten.

Astelehena arte izan zuten herriko kuadrillek, uztailearen 30eko bazkarian izen emateko aukera. Aulkiak eta mahaiak, datorren asteartean, 12:00etan, banatuko dira, eta zozketatik ateratako ordena berean egingo da. Atzo txupinazoaren momentuan egin zuten zozketa eta 75 zenbakia ateratu zuten Aniztasu-

nean Lagun boluntario taldeko kideek. Bestalde, kuadrillen egunean eguraldi txarra egingo balu, bazkaria Txermingo ikastolan egingo litzateke. Zalantzazko eguraldiaren kasuan, egunean bertan herri asanblada bat egingo da, 10:30ean Berdura plazan.

PRESOEN ALDEKO EKIMENAK

Atzo txupinazoaren unean herriko preso eta iheslarien aldeko elkartasun brindisa egin eta argazki erraldoia ateratu zuten Erreboten plazan.

Oskar Zelarain, Karlos Besance, Iñigo Guridi, Manex Castro eta Emilio Salaberria herritarrek hartu zituzten gogoan atzokoan

eta Santio jaiak irauten duten bitartean haiekiko elkartasuna adierazteko gunea antolatu dute Berdura plazan. Horrekin batera, ostiralean, 19:30ean, preso eta iheslarien eskubideen aldeko enkartelada abiatuko da Berdura plazatik. Eta igandean, uztailearen 28an 21:00etan, preso eta iheslarien aldeko afaria egingo da Berdura plazan. Txartelak salgai izango dira Iratzar elkartean.

Gaur, Santio eguna da, goizean udalbatzak bisita egingo du Santiago egoitzara, eguerdian soka dantza egingo dute udal ordezkariak herritarrekin batera, eta 18:00etan sokamuturra egingo da Jeronimo dultzaina taldeak alaituta.

Gaztetxeko ekimenak lekuz aldatuko dituzte festetan

J.M. Amasa-Villabona

Gaztetxea dagoen eraikinak «baldintza minimoak» betetzen ez dituela ikusita, eta inguruko bizilagun batek egin dituen protestak tarteko, udalak irtenbidea adostu du gazte asanbladarekin; aurtengo jaietan plazan dagoen lokal bat erabiliko dute gazteek.

Kale Nagusiko 38. zenbakian dagoen eraikinaren egoera «txarra» dela baieztatu du Amasa-Villabonako alkateorde Xabat Labordek. Udalak eraikinaren jabetzaren %52a du, gazte asanbladak erabiltzen duen lokala barne, eta egiturazko arazoak ditu etxeak: «Egurrezko habeak ditu, teilatua zaharkituta dago eta EITa etxebizitza eraikinen egoeraren azterketa tekniko ere ez du gauditu. Egoera prekarioan dago eta ez ditu segurtasun baldintza minimoak betetzen».

Gainera, gaztetxearen ondoan bizi den herritar batek salaketak jarri izan ditu bertan egiten diren ekintzek eragiten duten soi-

nuagatik. Onddo gazte asanbladako kideak saiatu dira bizilagunarekin biltzen irtenbide bat adosteko, baina etxejabeak ez du gazteekin hitz egin nahi izan. Udala, bai, bildu da berekin eta zarata sortuz gero salaketa jarriko diela jakinarazi die udal ordezkariak. «Bizilagun honek salaketa jarri gero juridikoki babesgabe geratuko litzateke udala».

Honenbestez, Amasa-Villabonako Udalak baloratu du, aurtuen ezin direla gaztetxean programatuta zeuden ekintzak egin. Gazte Asanbladarekin irtenbide bat, «ahalik eta txukunena», adostu du azken orduan. Pilotari kaleko bigarren zenbakiaren azpialdean, plazan bertan dagoen lokal erabiliko dute gazteek prestatuta zuten egitaraua aurrera eramateko. Prestutasuna agertu du lokalaren jabeak ekintza hauek bertan garatzeko eta udalak aseguru ere prestatu du jai egun hauetarako.

Astearte iluntzean bilera egin

zuten udal ordezkariak Pilotari kaleko bizilagunekin prozesua nola joan den azaldu eta azalpenak emateko: «Badakigu soinu asko izango dutela etxe azpian, baina udalak azaldu die behin behineko egoera izango dela hau, jai hauetarako momentuko irtenbide bat; ziurtatu diegu lokal hori ez dela inola ere gaztetxe bilakatu».

Irailetik aurrera, gazte asanbladarekin eseri eta aurrera begirako alternatibak adosten saiatuko direla jakinarazi du Labordek. «Kale Nagusiko eraikinaren egoera ez da ona eta udalak azterketa sakona egingo du irtenbide bat bilatzeko».

Bere aldetik, Onddo gazte asanbladak herritarren laguntza izan zuen atzo leku aldaketa gauzatzeko.

Atzo hasi ziren Santio jaietarako egitarauarekin. Ekitalditako batzuk Onddo plazan egingo dituzte, eta beste batzuk berriaz, plazaren aldameneko lokal berrian.



Txupinazoa botatzeko ohorea izan zuten Aniztasunean Lagun taldekoek. J.M.



ALKIZAKO UDALA

IRAGARKIA

Hiru urtetarako programa bidezko bitarteko funtzionario bat izendatzeko, Alkizako herriaren sustapen kultural eta turistikoa bultzatzeko lan-poltsaren deialdia eta oinarriak onartu ditu Alkizako Udalak. Aipatu deialdia arautuko dituen oinarriak www.alkiza.eus web orrian argitaratuko dira.

Alkizan, 2019ko uztailearen 24a

'Tolosaldeko Ataria'-ko kolaboratzailea izan nahi?

'Tolosaldeko Ataria'-k komunikazio proiektuan parte hartzeko aukera eman nahi dizu. Ikasturte berriarekin kolaboratzaile, iritzi emaile, irrati saio gidari edota komikigile izan nahi baduzu, idatzi ataria@ataria.eus helbidera edota deitu **943 65 56 95** telefono zenbakira.

Gustuko duzun hori egiteko aukera zabaldu nahi dizugu, ez galdu aukera!



«Irakasleok gure lana etengabe aztertzen egon behar dugu»

**XABI GOMEZ
IRAKASLEA**

Neurozientziaren ikerketak hezkuntzan aplikatzeko bildutako materiala irakasleen eskura jarri du tolosarrak, aurkeztu berri duen 'Crear escuela, tendiendo puentes entre la neurociencia y el aula' liburuaren bitartez.

Íñigo Terradillos Gaztañaga

Hezkuntzari bideratutako liburua argitaratu berri du Xabi Gomez irakasle tolosarrak. *Crear escuela, tendiendo puentes entre la neurociencia y el aula* lanarekin, garunak nola ikasten duen ikusi, eta hori ikasgelara eramatea da xedea.

Irakasleentzat izateko egin duzu liburua?

Hasiera batean, niretzat sortu nuen, eta materiala oso baliagarri egin zitzaidanez, nahi duen orontzat eskuragarri jartzea pentsatu nuen. Hezkuntza munduan dagoen edozein profesionalentzat da egokia.

Zientzia eta pedagogia batzea erronka dela aipatzen duzu.

Bi diziplina hauek orain arte hiz-

kuntza desberdina erabili dute. Azken urteetan, baina, pedagogiaren hizkuntza erabiltzen hasi dira, eta horrek hezitzaileoi lagundu digu euren ikerketek emandako ondorioak ulertu eta guregana ekartzen. Zientziak esaten diguna hezitzaileentzat baliagarria izatea da helburua.

Eta nola elkartzan dira bi diziplinak?

Ni hezitzailea naiz, eta nire oinarria irakasle moduan dudun egunerokoan osatu dut. Oinarri horretatik, neurozientziarekin lotutako arloetan formatu naiz. Nerbio sistema ikertzen duen diziplina da, eta horren barruan, organo garrantzitsuena da garuna. Hezitzaileoi, hain justu, garunaren funtzionamendua interesatzen zaigu, hala nola, nola ikas-

ten duen garunak edota garunaren portaera bera.

Nola ikasten dugun jakitea da, beraz, bereziki garrantzitsua hezitzaileentzat.

Makina batek nola funtzionatzen duen baldin badakigu, etekin handiagoa aterako diogu. Berez, nahiz eta ikerketarik ez zegoen, antzinatek dakigu nola ikasten duen garunak. Pedagogiak eta psikologiak esan digute nola ikusten dugun. Neurozientziak garuna aztertzen du, eta frogan empirikoen bitartez frogatu ahal izan da nola ikasten duen. Beraz, ez dugu orain asmatu nola irakatsi behar den. Garunaren funtzionamendua aztertuz ikusi eta frogatu dugu gauza batzuetan ondo ari ginela, eta beste batzuetan ez hain ondo.

Blokeetan banatu duzu liburuko edukia. Zeintzuk dira?

Arlo horretan erabili ohi diren hamar interes blokeetan banatu dut. Hor aurkitzen ditugu emozioak, barne motibazioa, akatsen lanketa, arretaren gaia, memoriaren lanketa eta erabilera, barkakako ikaskuntza edo kooperatiboa, sormen artistikoa... Irakasleen jardunari begira eta errazte aldera egindako banaketa ere izan da.

Irakasleek etengabe berritzen egon behar dutela erakusten al du lan honek?

Badirudi ikastetxeetan orain arte egiten zena gaizki egiten zela eta dena goitik behera aldatu behar dugula. Egonezin pixka bat sortu du ideia horrek, eta ikastetxe askotan dagoen metodologiak bai ala


bai aldatu behar direnaren sentzazioa. Baina, ez da horrela, eta ideia horrekin kontuz ibili behar da. Egia da irakasleok gure lana etengabe aztertu eta neurtu behar dugula, eta planteatutako helburuak betetzen diren baloratu behar dugula. Baina, nik uste dut irakasleok egiten dugula hori. Ez, agian, egunero, baina, gure eskolak emateko modua egokia den aztertzen dugu. Funtzionatzen ez duena moldatzeko neurozientziak ematen dizkigun pistak erabili ditzakegu. Ez da, beraz, aldatzea aldatzeagatik, baizik eta aldaketak egitea norberak bere lanean egindako gogoeta txikiaren ondorioz. Esaterako, helburuak bete ez izanagatik. Eta, ez, estetika edo moda kontuengatik. Beraz, etengabe berritzen baino, etengabe aztertzen esango nuke.

Ikastetxeen arteko kompetentzia dagoenaren sentzazioa dago, nork metodologia berritzaileagoa erabili.

Gizartearen egoerak baldintzatzen du eskola, nahiz eta aldearantz izan beharko lukeen. Eskolak moldatu beharko luke gizartea. Gero eta ikasle gutxiago ditugu orokorrean, jaiotza gutxiago ditugu, eta berritzaile izate horretan, gauzak estetikoki egitera erori gaitezke askotan. Aldamenekoarekin konparatuta zerbait desberdina egiten ari zarenaren ideia zabaltea izaten da askotan helburua, eta ez luke horrela izan behar.

Hezkuntzak badu gizartean eduki beharko lukeen adina pisua?

Gizarteak jakin badaki hezkuntza oso garrantzitsua dela. Praktikara eramatean, ordea, ez zaio ematen behar duen lekua, eta hori argi ikusten da, esaterako, jartzen diren baliabideetan. Nola hezkuntza sistema nahi dugun erabakitze gogoeta sakona egiten behar dugu.



ATARIA

Hilberriak eta urteurrenak

**ATARIAn jarrita
Gipuzkoako
3 Hitzetan DOAN**

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 100 € • Harpidedunentzat 50 €

HANDIA (124mm X 63,5mm): 150 € • Harpidedunentzat 75 €

ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 50 € • Harpidedunentzat 25 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu

XXX. Joxean Tolosa Pilota Txapelketak hasi du bere bidea

Bi asteburutan jokatu dituzte partidak; finalak irailaren 15ean izango dira

I. Garcia Landa Amezketak

Martxan jarri da dagoeneko XXX. Joxean Tolosa Pilota Txapelketa, gizonetzkoen kadete, gazte eta nagusien mailetan, Amezketako Zazpi Iturri elkarteak antolatuta. Buruz buru kan-txa osoan jokatzeko da, herriko Larrunarri frontoian, ostiral eta larunbatetan, 21:30ean hasita. Bi asteburu jokatu dituzte eta astebururo izango dira partidak, herriko festetan izan ezik. Finalak irailaren 15ean izango dira. Emakumezkoen txapelketa ere izango da, batez ere herriko parte hartzaileekin eta maila bakarrean. Partidak aurrerago hasiko dira eta finala ere irailaren 15ean izango da.

Gizonetzkoen dagokionez, aurreko asteburuan ondorengo emaitzak izan ziren: kadeteetan, Elosegia (Azpeitia) 7, U. Amiano 18 (Irun, Tolosa elkarteak); Iker Egiguren (Azpeitia) 18, Amundarain (Alkiza, Tolosa elkarteak) 8; gazteetan, Salaberria (Hernani) 10, Altuna (Tolosa) 18; Arrien

(Zornotza) 10, Goikoetxea (Tolosa) 18; nagusietan, Ruiz de Larramendi (Lazkao) 18, Zabala (Aduana, Zazpi Iturri elkarteak) 14; Maiz (Villabona) 13, Zubiria (Berrobi, Zazpi Iturri elkarteak) 18.

Asteburu honetan beste bi jardunaldi izango dira. Ostiralean, kadeteetan, Gorrotxategi (Arbizu) eta Emaldi (Zeanuri); gazteetan, Odriozola (Zestoa) eta Zubeldia (Altzo); eta nagusietan Irazustabarrena (Alegia) eta Gaskue (Larraintzar) ariko dira. Larunbatean, kadeteetan, Naldaiz (Lazkao) eta Ibarloza (Markina); gazteetan, Alberdi (Azpeitia) eta Iker Amiano (Irun, Tolosa elkarteak); eta nagusietan Uribe (Gasteiz) eta Julen Alberdi (Andoain) ariko dira.

Partida guztiak kanporaketa bidez dira, beraz, irabazten duenak aurrera egiten du eta galtzen duenak txapelketatik kanpo geratzen da.

Aurtengoan pilotari gaztetxoek txapelketa egingo da, bost urtez behin egiten den moduan. Mutiletan benjamin, alebin eta infantil mailak izango dira, eta nesketan maila bakarra egingo da. Hauen partidak aurrerago hasiko dira, eta larunbat arratsaldetan jokatu dute. Finalak irailaren 14an egingo dira.



Jokin Etxeberria, aurreko igandean egindako Euskal Herriko Segatxapelketaren kanporaketan. ASIER IMAZ

Etxeberriak Gabirondo du aurkari nagusi, txapela janzteko

Aurtengorako prestaketa aldatu egin du Bedaion bizi den Jokin Etxeberria segalari amasarrak, igandean egingo den Euskal Herriko Txapelketako finalean pentsatuz.

Imanol Garcia Landa
Amasa-Villabona

Jokin Etxeberria izango da eskualdeko partaide bakarra igandean jokatu den Euskal Herriko Segatxapelketan. Bedaion bizi den segalari amasarra da faboritoetako bat, Julen Gabirondorekin batera. Txapelaren lehian ariko diren beste bi segalariak Iban Pardo eta Jon Otegi dira. Asteasuko Bulano baserriko zelaietan izango da norgehiagoka, 12:00etan hasita.

Aurkari zuzenena Julen Gabirondo dela esan du Etxeberriak: «Baditu Euskal Herriko hiru txapela eta azkeneko Gipuzkoakoa aise irabazi zigen. Ez da ahaztu behar Pardo ere, kanporaketan ordu erdiko lan oso ona egin baitzuen, eta Otegi gaztea ere hor dago, agian txapela irabazteko ez, baina bigarren finala du eta ilusioarekin ariko da. Inor ez dago baztertzeko, baina Gabirondo da faboritoa».

Aurreko igandean jokatu zen kanporaketa, eta bertan oso gustura sentitu zela dio Etxeberriak: «Gipuzkoako Txapelketatik go-

raka egin dugu, eta oso eroso sentitu nintzen kanporaketan. Hasieratik aurretik jarri nintzen, eta aurretik jartze horrek duen abantailarekin, asko gozatu genuen».

Ordu erdiko lana egin zuten kanporaketan, eta igandeko finalean lan bikoitza egin beharko dute segalariak. Amasarrak nahiago du ordubeteko lana: «Ordu erdian herio bat da; gaizki hasten bazara, denbora gutxiago dago, eta ordubetean denbora margen gehiago duzu. Beste erritmo batean zoaz, lasaiago eta konstanteagoa, eta ni ordubete-koaren aldekoa naiz». Esfortzua, noski, ez da nolana hiko. «Eguraldiak asko eragiten du. Gero, psikologikoki ordubetean erritmo bati eusteak badu bere lana».

Aurtengoari begira prestaketa aldatu egin duela dio amasarrak. «Aurreko urtean Gipuzkoarako oso ondo nengoen, eta txapela irabazi nuen. Gero hilabete batean asko kostatu zitzaidan puntu hori mantentzea eta beheraka egin nuen, eta Euskal Herriko pixka bat bajatu egin nintzen. Aurten, hori ikusita, beste era ba-

tera planteatu dugu. Gipuzkoakora iristen ginen bezala iristea pentsatu genuen; lan karga handia eginda iritsi ginen, nekatu puntuarekin, eta salbatu genuen bigarren postu bat eginez. Prestaketa Euskal Herrikoari begira egin dugu».

Finalerako gako garrantzitsua, Etxeberriarentzat, eguraldia izango da: «Niri asko eragiten dit. Gabirondo fisikoki oso ondo dago eta hark ondo aguantatzen du». Horren adibide Gipuzkoako finala izan zela dio amasarrak: «Bero handia egin zuen, eta hor ikusi zen nola aguantatu zuen berak, eta guri nola erasan zigun». Iganderako 19 gradu inguru izango direla aurreikusten da. «Guretzako hori oso ona da».

Segalariak janzten dituzte txapelak, baina beraien inguruan dabilen taldearen lana oso garrantzitsua izaten da. Familiakoak eta lagunak ditu bere taldean Etxeberriak: «Eskertzekoa da egiten duten lana. Jendeak ez dio orokorrean garrantzirik ematen, baina beraiek egiten duten lana izugarria izaten da».



SARIA, BANATUTA

Intxurre K.K.E.k egiten duen zozketaren irabazlea Beñat Hierro irurarra izan da, klubeko entrenatzaileetako bat. Irudian, ezkerrean, Patxi Renobales klubeko ordezkariaren eskutik saria jasotzen. 0563 zenbakiarekin irabazi du zozketa: Maria Kristina Hotelean gau bat eta gosaria, Juanito Kojuan afaria bi lagunentzako, La Perla talasoterapiari bi lagunentzako saioa eta bertako jatetxean bazkaria, eta 300 euro. ATARIA



OSTEGUNA, 2019KO UZTAILAK 25

Argitaratzailea:

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM

Lege Gordailua: SS-1323-2013

Koordinatzailea: Rebeca Calvo Gonzalez

Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizalete

Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.

Telefonoa: 943 65 56 95.

E-posta: ataria@ataria.eus

Publizitatea: 661678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus

Villabona-Aiztondo: 687 410 022.

villabona-aiztondo@ataria.eus

Anoetalea: 687 410 022.

anoetalea@ataria.eus

Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus

Alegialdea: 687 410 034.

alegialdea@ataria.eus

Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus

Bezero arreta zerbitzua: 943 30 43 46



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Ekuain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



OSTEGUNA 25

AGENDA

Deialdiak

Amasa-Villabona. Santio festak: 09:00etan diana, Loatzoko Txistu taldearen eskutik; 10:30ean udalbatzaren bisita Santiago egoitzara; 10:30etik aurrera XXXIX. Herri Krosa Altzin plazatik; 12:00etan soka-dantza Oinkariren eskutik, Errebote plazan; 12:45ean Atari Bizilehiaketaren eta jai egitarauaren azalaren sari banaketa, Errebote plazan; 13:00etan Eresargi Txiki abesbatzaren kontzertua, Berdura plazan; 17:00etan buruhandi, ipotx eta erraldioen kalejira, Loatzo Musika Eskolako Txistu taldeak alaituta; 18:00etan sokamuturra Loatzo Musika Eskolako Jeronimo Dultzaina taldeak alaituta, Errebote plazan; 19:30ean rock emanaldi ibiltaria, Rockalean taldearen eskutik, Berdura plazatik abiatuta; 22:00etan Oinkari dantza eskolaren Ametsen mundua ikuskizuna, Olaederran; eta 00:30ean Laiotz, Errebote plazan.

Tolosa. Alkoholiko Anonimoen Uzturre taldeak bilera irekia egingo du Kondeako aldapan dagoen Corpus Christiko aretoetan 19:30etik aurrera.

debaldera egin, zakartu eta termometroak nabarmen etorriko dira behera. Zeruan goizean eta arratsaldeko lehen orduak arte giro argia izango da. Haizearen aldaketarekin ordea, zeruan hodeiak nagusitzen joango dira, zerua estalirik utziz. Eguna amaitzerako euri pixka bat eta ekaitz bakanen bat izango dugu.

Bihar. Giro euritsuua. Egoera erabat ezberdina izango da aurreko egunekin alderatuz.

Fronte batek hodeitza handia eta euria utziko dizkigu. Euri zaparradak mardulak eta nahiko ugariak izango dira egun osoz, baztertu gabe uneren batean ekaitzak jo eta zaparrada gogorren bat botatzea. Haizeak iparraldetik joko du eta termometroak nabarmen jaitsiko dira, giro freskoa geratuz. Maximoa ez da 20-22 gradutik pasako.

28 KANALA

13:30. Gaurkoan Tolosaldeak.

16:30. Hiri baratzea.

17:30/21:30. Gaurkoan Tolosaldeak.

22:00. Urrutiajunbe.

22:30. Ajoarrieroa.

23:30. Gaurkoan Tolosaldeak.

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunkoia eta gauekoa.

Lourdes Azpiroz Galarza.

Amarotz auzoa, 9.

Telefono zenbakia: 943 67 5118.

TOLOSALDEKO ATARIK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ZORION AGURRAK



Maitasunez, Alegiatik!

Aupa Oskar eta animo!



Urte askoan!

Zorionteza egun batez aurreratu dugu, baina hamaiketako jasotzeko iraila arte itxaroteko prest gaude. Ondo pasa zure egunean!

ZORION AGURRAK

Urtebetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberririk...

943 65 56 95

ataria@ataria.eus

San Esteban 20
Tolosa

Argazkia
bi egun lehenago
ekarri mesedez

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA



Gaur.

Berotik hasiko da eguna, baina aldaketak iritsiko dira.

Goizean eta arratsaldeko lehen orduak arte oraindik bero egiten jarraituko du eta tenperatura beroenak 35 graduren bueltan kokatuko dira. Arratsaldetik aurrera haizeak ipar-men-



harpidedun izateak badu saria zozketa

1 TXINDOKIKO ITZALA Abentura Parkea
Bi lagunentzako bina sarrera



txindokikoitzala.com/eu/
info@txindokikoitzala.com
628 947 253 | 943 654 757
ABALTZISKETA

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **51**

2 TXURI URDIN irristaketa librea
Bi lagunentzako bina sarrera



Anoeta pasealekua, 24
DONOSTIA
Tel.: 943-46 44 04
www.eltxuri.com

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **52**

3 LEARTIBAI ondarearen kalitatezko kontserba eta produktu sorta



Laneko Koop. Elkarte
Okamikako industrialdea, 2 5 A
48289 Gizaburuaga.
94 684 20 26
www.bbkazoka.eus/eus/kolekzioak/laneko

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **53**

Parte hartzeko deitu **902-82 02 40** telefono zenbakira edo sartu www.ataria.eus webgunean • Aste honetako astearte, asteazken eta ostegun goizean. Saridunak ostiralean argitaratuko ditugu.